



BETETZE-POLITIKA ESKUMENAREN ARLOAN

ADMINISTRAZIO-ORGANOAK
ONARTUA:

2023ko abendua

ALDAKETAK KONTROLATZEA

BERTSIOA - ATALAK	IRUZKINAK - DATA
V.0.- hasierako dokumentua	OB-ak prestatua, gainbegiratu eta onartua 2022-11-03ko aktan eta 11/2022 administrazio-organoan
V.1.- Lehia defendatzeko eta IBEari buruzko puntuaren inguruko jardunbide egokien araberako berrikuspen politikoa, otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera.	Komunikazio Bulegoak prestatu, gainbegiratu eta onartu zuen 2023ko azaroaren 29ko aktan, eta Administrazio Organoak 12/2023an

AURKIBIDEA

1.	XEDEA ETA HELBURUA	4
2.	IRISMENA	4
3.	HELBURUAK	4
4.	INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA.....	6

1. XEDEA ETA HELBURUA

INTEGRA MANTENIMIENTO, GESTIÓN Y SISTEMAS INTEGRADOS CENTRO ESPECIAL DE EMPLEO S.L. (aurrerantzean, INTEGRA) gobernu-organoak, indarrean dagoen legeria, barne-araudia eta printzipio eta balio etikoak betetze aldera, Compliance Kudeatzeko Sistema garatzeko, ezartzeko eta mantentzeko behar diren baliabideak ditu. Sistema horrek barne hartzen ditu merkatuko lehia askeari eta aukera-berdintasunari kalte egin eta mugatzen dituzten jokabide irregularren prebentzioa, antzematea eta erantzuna.

Politika hori bat dator Prebentzioaren Printzipio Zuzendariekin eta debekatutako jokabideen katalogoarekin, bai eta INTEGRAREN Kode Etikoan jasotako barneko jokabideen balio eta arau etikoekin ere. Horrekin lotuta, INTEGRAK konpromiso irmoa du lehia zintzoaren eta leialaren alde, eta aitortzen du xede horretarako ezinbestekoak direla lehia babesteko araudia betetzea eta betetzearen kultura sustatzea erakunde osoan.

2. IRISMENA

Betetzearen arloko politika hori INTEGRAREN jarduera guztiei aplikatzen zaie eta kide guztiek bete behar dute, erakundearen barruan betetzen duten kargua edo lanpostua, harreman mota eta nazio-mailan duten kokapen geografikoa alde batera utzita.

Bestalde, politika hori luzatuko zaie hirugarrenekin izaten diren harremanei –negozio-kideekin, erakundearen izenean jardun edo ekintzak egiten dituzten pertsonekin, eta, baldin badaude, atzerriko eskumendeko enpresekin eta partaidetza-sozietateekin–, barne-prozeduretan ezarritakoaren arabera, erakundeari arrisku kritiko edo larririk ekar diezaioketen neurrian. Politika hori ezagutu eta beren jarduera profesionalaren esparruan aplikatu beharko dute guztiek.

INTEGRAREN kontrolpean dauden sozietateen edo erakundeen kasuan, politika hura aplikatuko da Compliance Kudeatzeko Sistema Integralera atxikiz edo harekin bat etorritz.

3. HELBURUAK

Politika honen helburu nagusiak dira:

- ❖ Erakundearen Kode Etikoaren, printzipio zuzendarien, politiken eta gainerako barne-araudien irizpideei jarraitzea. Kode horrek jasotzen du enpresa-etikaren printzipioekin eta jarduketa-eremu guztietako gardentasunarekin INTEGRAK

duen konpromisoa, eta, lan egitean, INTEGRAREN profesional guztiek bete behar dituzten jokamolde etikoak eta arduratsuak arautzen ditu, eta horiek ez betetzeak dituen ondorioak ere bai. Zehazki, merkatuan lehia babesteko eta lehia askea sustatzeko araudiari helduko zaio eta, arau-hauste bat egiten bada, dagokion zehapen-araudiari helduko zaio.

- ❖ Kultura etikoaren ezarpen eta garapen efektiboa eta INTEGRAREN kide denek lehia babesteko araudia betetzea, lanpostua eta funtzioak non betetzen dituzten alde batera utzita.
- ❖ Erakunde osoan lehia babesteko araudia hausten duen edozer egintza ez onartzea, eta, bereziki, honako gauza hauek dakartzaten jokabideak: prezioak hitzartzea; merkatuak, bezeroak eta kontratuak banatzea; informazio komertziala trukitzea eta ABEEak, lehia babesteko araudiaren arabera behar bezala justifikatuta ez daudenak, sortzea lehiatzaileekin.
- ❖ INTEGRAREN Betetze Organoari lehia askearen aurkako jokabideak prebenitzeko eta kudeatzeko behar diren ahalmenak eta eskumenak izendatzea eta esleitzea, bere lana egiteko baliabide material eta giza baliabide nahikoak emanaz, etengabeko prestakuntza sustatuz, kargua betetzean lidergoa, autonomia, agintea eta independentzia bermatzeko helburuarekin, Gobernu Organoaren mende eta zuzeneko sarbidearekin.
- ❖ Lehiaren arloan arrisku propioak antzematea, aztertzea eta baloratzea, eta hura eraginkortasunez kudeatzeko prozedura eta kontrol egokiak ezartzea, bai eta ebaluazio-, jarraipen- eta monitorizazio-sistemak ere.
- ❖ INTEGRAREN kideei eta eskatzen duten negozio-kideei eta bestelako interes taldeei etengabe komunikatzea, prestatzea, sentsibilizatzea eta kontzientziazatzea Compliance Kudeatzeko Sistema Integralaren edukia, baldintzen eta izaeraren inguruan, haren eraginkortasunik handiena lortzeko eta gure jarduerak betetzean arriskuan oinarritutako ikuspegia izateko.
- ❖ Erakundearen kideek, eta edozer hirugarrenek ere bai, zuzenean jakinarazi beharko dizkiote erakundeari lehiaren arloko arau-hausteak edo jokabide irregularrak, horien jakinaren gainean badaude edo susmorik badute.
- ❖ Alde interesdunen eskura kanal etiko bat jartzea, Informazioaren Barne Sistemaren barruan integratua, dagokion politika, prozedura eta hura behar bezala kudeatzeko eta izapidetzeko arduraduna, lehiaren defentsaren arloko Betetzea Kudeatzeko Sistema Integralaren irregulartasunak eta ez-betetzeak jasotzen direnerako, eta, aldi berean, dauden oinarritzko eskubideak

errespetatzen direla bermatzea, bereziki salatzailearen edo fede oneko informatzailearen konfidentziasuna, anonimotasuna eta errepresaliarik ez egotea ziurtatzeko.

- ❖ Behar diren zehapen-neurriak hartzea sortzen diren arriskuen aurrean eta Compliance Kudeatzeko Sistema Integrala hausten denean lehiaren arloan. Horrek guztiak ez die kalterik eragingo gainerako lege- edo kontratubetekizunei, jokamolde horietatik enpresa-mailan erator litezkeenei.

4. INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA

Politika hori indarrean sartuko da dokumentu hau onartu, aldatu edo eguneratzen den egun berean.

Argitaratu eta hedatuko da, ezagutzera emate aldera. Gainera, korporazioaren webean eskuragarri eta kontsultagarri egongo da.

INTEGRA ohikoan berrikusiko du edukia, dokumentu-informazioko sisteman ezarritako maiztasunarekin. Ezohikoan, hura egokitzeko edo berehala eguneratzeko legezko, antolamenduko edo beste nolakotasun bateko baldintza garrantzitsuak gertatzen direnean.